# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-3226

18/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

EKAINAREN 25EKO 18/1998 LEGEA, DROGAMENPEKOTASUNEN ARLOKO AURREZAINTZA, LAGUNTZA ETA GIZARTERATZEARI BURUZKOA

ZIOEN ADIERAZPENA

Drogak kontsumitzea gertakari konplexua da, eta, modu batean ez bada bestean, horrelako edo halako helburuak izanda, gizarte-modu gehienetan ageri izan da. Baina batez ere mende honetako azken hogeita bost urteetan hasi dira Mendebaldeko gizarteak drogen kontsumoa osasun publikoarentzat arazoa izan daitekeela ikusten, bai gai berriak agertu direlako, bai gizartean gero eta hedatuagoa egon delako kontsumo hori. Izan ere, gero eta gehiago ziren drogamenpekotasuna zuten pertsonak, eta hasieran ez zen jakin arazoari nola aurre egin.

Onartu beharrekoa da drogak kontsumitzeko modu guztiak ez direla, berez, arazo-eragile edo osasunarentzat kaltegarri. Gerta daiteke pertsona batzuek bizitza osoan droga jakin bat hartzea eta horrek osasunean edo ongizatean arazo larririk ez eragitea. Baina amets hutsa baino ez da droga-kontsumoa gizarte osora zabaldu eta arazorik ez dela sortuko uste izatea. Izan ere, edozein gizataldetan, kontsumitzaileak zenbat eta gehiago izan, arazoak ere orduan eta sarriago sortuko dira, zalantzarik gabe.

Euskal gizartean ere eragin du drogamenpekotasunmodu berriak agertzeak, eta, ondorioz, drogak hartzeak osasunarentzat dakartzan arriskuez ohartu eta arazoari esparru guztietatik heldu behar zaiola ikusi dugu. Hasteko, arau-esparrutik ekin behar zaio.

Hori horrela izanik, Eusko Legebiltzarrak azaroaren 11ko 15/1988 Legea onartu zuen, Drogamenpekoen alorreko Aurre-hartze, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzkoa, hain zuzen Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dizkion eskumenen baitan.

15/1988 Legeak gizartearen oniritzia izan du, indarrean egon den artean lege horrek ezarritako erregime-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-3226

LEY 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias.

Se hace saber a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 18/1998, DE 25 DE JUNIO, SOBRE PREVENCIÓN, ASISTENCIA E INSERCIÓN EN MATERIA DE DROGODEPENDENCIAS.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El consumo de drogas es un fenómeno complejo que, de una u otra manera, con unos u otros fines, ha estado presente en la mayoría de las sociedades humanas. Sin embargo, es en el último cuarto del presente siglo cuando las sociedades occidentales, bien por la aparición de nuevas sustancias, bien por la difusión de su uso en capas sociales cada vez más amplias, empiezan a percibir dicho consumo como un problema de salud pública por la aparición, cada vez más frecuente, de casos de drogodependencia a los que en un primer momento no se sabe cómo hacer frente.

Es preciso reconocer que no todo uso de drogas es de por sí problemático o pernicioso para la salud. Cabe la posibilidad de que determinados individuos consuman una droga de por vida sin que se detecten consecuencias nefastas para su salud o bienestar. Resulta utópico, sin embargo, pretender que pueda existir un uso no problemático generalizado, ya que en una población cualquiera, a mayor extensión del uso, se darán, con toda probabilidad, más casos problemáticos.

La sociedad vasca no ha sido ajena a este proceso de aparición de nuevas drogodependencias y a la consiguiente toma de conciencia de los riesgos que el uso de drogas comporta para la salud y de la necesidad de hacer frente a esta problemática en todos los ámbitos, comenzando por el normativo.

En este contexto, el Parlamento Vasco vino a aprobar, en el marco de las competencias que el Estatuto de Autonomía otorga a la Comunidad Autónoma vasca, la Ley 15/1988, de 11 de noviembre, sobre Prevención, Asistencia y Reinserción en materia de Drogodependencias.

La Ley 15/1988 ha encontrado un eco favorable en la sociedad vasca, extendiéndose durante su vigencia

naren balorazio positiboa egin baita. Baina gaur egun drogamenpekotasunen arloan jarduteko politiketan izandako aldaketak direla eta, legeria egoera berrira egokitu beharra dago, eta, aldaketak egitean, administrazio guztien eta eragiten dieten sektoreen arteko koordinazioa eta erantzunkidetasuna areagotu egin behar dira.

Aipatutako arrazoiengatik, legearen asmoa izan da bertako artikuluetan Drogamenpekotasunen Eusko Legebiltzarreko Batzordeak 1994ko ekainaren 30ean hartutako erabakian jasotako jarraibideak jasotzea, helburu hauek lortzeko asmoz:

1.– Drogamenpekotasunei aurrea hartzeko politiketan eraginkortasun handiagoa lortzea. Horretarako, elkarte-aurrezaintzako udal-talde teknikoak sortu eta jarri dira lanean.

2.– Komunikabide publikoen erantzunkidetasuna lortzea.

3.– Botiketan sendagai sorgorgarriak, psikotropoak edo horietako ezaugarriren bat dutenak ematea benetan kontrolatzea.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko poliziari eskatzea drogak legez kontra salerosteari aurrea hartzeko, eta ez jarduteko errepresioaren arloan soilik.

5.– Aurrezaintzako, laguntzako eta gizarteratzeko politika publiko guztien beharrezko koordinazioa hobetzea, eta erakunde guztiak koordinatzea bai beren artean eta bai gainerako enpresekin, sindikatuekin, ekimen pribatuekin, laguntza-sare publiko eta pribatuarekin eta sistema judizialarekin.

6.– Erretzaileak ez direnen eskubideak zaintzea, beste ustezko eskubide batzuekin aurrez aurre daudenean.

7.– Zigor-erregimen bat arautzea, legea eta legeak dituen helburuak betearazterakoan eraginkorragoak izateko.

Testu berriak aldatu egin du 15/1988 Legea, bai gai berriak jaso dituelako bere baitan, bai egiturako aldaketak egin dituelako, hain zuzen ere araudia gaur egungo egoerara egokitzeko. Horrek ez du esan nahi 15/1988 Legean ageri zen joera pedagogikoa ageri ez denik, lege berriaren artikuluetan indarberrituta jasotzen baita ezaugarri hori; horrela, euskal gizarteari drogamenpekotasuna ulertzeko eta drogamenpekotasunetan eragiteko modu bat proposatzen dio, elkarte-estrategia deitutakoa. Hona estrategia horren ezaugarri nagusiak:

1.– Globalizazioa: izan ere, alkoholdun edariak, tabakoa, psikofarmakoak eta legez kontrako drogak deitutakoak behar ez bezala erabili edo neurriz kanpo hartzeagatik sortutako arazoei hainbat arlotatik heltzen zaie: osasunarenetik, gizartearenetik, hezkuntzarenetik, delituarenetik, ekonomiarenetik e.a.

2.– Normalizazioa: drogamenpekotasunetatik sortzen diren premiei aurre egiteko, euskal gizarteak antzeko beharrizanei erantzuteko dituen ohiko egituren

una valoración positiva del régimen legal. Sin embargo, y habida cuenta de los cambios operados en las políticas de actuación en materia de drogodependencias, se hace necesario adaptar la legislación a la nueva realidad y hacerlo desde una perspectiva que profundice en la corresponsabilidad y coordinación de todas las Administraciones y sectores implicados.

Por estos motivos la ley ha pretendido incorporar en su articulado las directrices contenidas en el acuerdo de 30 de junio de 1994 de la Comisión sobre las Drogodependencias del Parlamento Vasco, orientándose hacia los siguientes objetivos:

1.– La búsqueda de una mayor efectividad de las políticas de prevención de drogodependencias mediante la creación e implantación de los equipos técnicos municipales de prevención comunitaria.

2.– La corresponsabilidad de los medios públicos de comunicación.

3.– El efectivo control en la dispensa de fármacos estupefacientes, psicotropos y especialidades farmacéuticas que los contengan.

4.– El requerimiento a la Policía del País Vasco de actuaciones, no sólo en el ámbito de la represión, sino en el de la prevención del tráfico ilícito de drogas.

5.– La mejora de la necesaria coordinación de todas las políticas públicas de prevención, asistencia e inserción, así como de las distintas instituciones implicadas entre sí y con las distintas organizaciones empresariales, sindicales, iniciativas privadas, red asistencial pública y privada y sistema judicial.

6.– La tutela de los derechos de los no fumadores en situaciones de colisión con otros hipotéticos derechos.

7.– La regulación de un régimen sancionador que permita una mayor eficacia en el cumplimiento de la Ley y de los objetivos que ésta persigue.

El nuevo texto legal, bien incorporando contenidos novedosos, bien enunciando cambios estructurales, supone la modificación de la anterior Ley 15/1988 para su adecuación normativa a las condiciones actuales. Ello no es óbice para que en la nueva articulación del texto el carácter pedagógico de la Ley 15/1988 se exprese con renovado brío, trasladando a la sociedad vasca un modelo de comprensión del fenómeno de las drogodependencias y de intervención que podemos denominar como estrategia comunitaria, y que tiene como características principales:

1.– Globalización, en tanto que se abordan aspectos sanitarios, sociales, educativos, delictivos, económicos, etc., derivados del uso inadecuado o abusivo tanto del alcohol, tabaco y psicofármacos como de las denominadas drogas ilegales.

2.– Normalización, ya que plantea la respuesta a las distintas necesidades que surgen de las drogodependencias, desde las estructuras ordinarias que la sociedad vas-

bidez (osasunekoak, hezkuntzakoak, gizarte-zerbitzuak, polizia...) baliatzea proposatzen da.

3.– Plangintza: aurrezaintzaren, laguntzaren, gizarteratzearen eta drogen eskaintza kontrolatzearen inguruko beharrezko lan guztiak aurrera eramateko, modu koordinatuan, planifikazioa eginda eta etengabe jardutera behartzen ditu administrazio publikoak.

4.– Parte hartzea: gertakari horren inguruko gizarteko ordezkari guztiak kontuan hartzearen premia aldarrikatzen du; drogek eragindako arazoei irtenbideak aurkitzeko orduan, herritarrek parte hartzeko bideak jartzen ditu, ezinbestekoa baita.

Legea idazterakoan, nazioarteko, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Europako Batasuneko legeria izan dira kontuan, baina batez ere Munduko Osasun Erakundeak emandako irizpideak jarraitu dira. Legeria orokorraren esparruko legea da, eta bereziki osasun arlora eta gizarte-zerbitzuenera zuzenduta dago. Euskal Autonomia Erkidegoan gizarteak drogamenpekotasunekiko duen pertzepzioa aztertzea izan da legeak kontuan eduki dituen oinarrizko osagaietako bat.

Autonomia estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari hainbat arlotan ematen dizkion eskumenen baitan dago kokatuta legea. Arlo hauetakoak dira eskumen horiek: osasuna, gizarte-laguntza, hezkuntza, polizia, toki-erregimena, gazteria, barne-merkataritza, espetxeak eta adin gabekoentzako zentroak, kontsumitzaile eta erabiltzailearen defentsa, justizia-administrazioa eta polizia judiziala, iragarkiak, estatistika, ikerketa eta beste hainbat. Bestalde, bost kapitulu, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu legeak.

Lehenengo kapituluan legearen helburuak zeintzuk diren zehazten da, eta drogamenpekotasunetan eragiten duten hiru arlo aipatzen ditu: aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzea. Legeko artikuluetan zehar arautuko dira horiek guztiak eta bakoitzaren definizioa ere jaso da.

II. kapitulua drogamenpekotasunei aurrea hartzeari buruzkoa da, eta drogen kontsumoari aurrea hartzeko neurri orokorrak arautzen ditu. Horrekin batera, sendagai sorgorgarri eta psikotropoak kontrolatzeko bideak zehazten ditu, eta baita ere alkoholdun edariak, tabakoa nahiz beste gai batzuk sustatzea, horiei buruzko iragarkiak egitea eta kontsumoa kontrolatzeko neurriak.

III. kapitulua drogamenpekoei laguntza eman eta pertsona horiek gizarteratzeari buruzkoa da; laguntza emateari dagokionez, laguntza hori osasun arlokoa nahiz gizarte-zerbitzuen arlokoa da.

IV. kapituluan antolaketa-moduak eta gizartearen parte-hartzea arautzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak nola ordenatuko eta koordinatuko diren zehazten da; era berean, Sailen arteko Batzordea eta Drogamenpekotasunen Aholku Batzordea nola osatuta egongo diren eta bakoitzak zein eremutan jar-

ca tiene para responder a necesidades similares (sanidad, educación, servicios sociales, policía, etc.)

3.– Planificación, ya que obliga a las distintas Administraciones públicas a organizar de una manera coordinada, planificada y permanente, la diversidad de intervenciones sectoriales necesarias para abordar la prevención, asistencia, inserción y control de la oferta de drogas.

4.– Participación, consagrando la necesidad de contar con las distintas representaciones sociales del fenómeno y estableciendo los cauces de participación ciudadana imprescindibles en la búsqueda de soluciones a las drogas.

La ley, en cuya elaboración se ha tenido en cuenta la legislación de ámbito internacional, estatal, autonómico y del marco comunitario europeo, atiende de modo particular los criterios de la Organización Mundial de la Salud. Se ubica en el marco de la legislación general existente, y en particular de aquella dirigida al área de la salud y de los servicios sociales. El análisis de la percepción social del fenómeno de las drogodependencias en la Comunidad Autónoma vasca ha sido uno de sus referentes básicos.

La ley se sitúa en el marco de las competencias que el Estatuto de Autonomía otorga a la Comunidad Autónoma vasca en materia de sanidad, asistencia social, educación, policía, régimen local, juventud, comercio interior, instituciones penitenciarias y centros de menores, defensa del consumidor y usuario, Administración de Justicia-Policía Judicial, publicidad, estadística e investigación, entre otras, estructurándose en cinco capítulos, dos disposiciones adicionales, una disposición derogatoria y dos disposiciones finales.

El Capítulo I, dedicado al objeto de la ley, menciona los tres aspectos que inciden en las drogodependencias, esto es, la prevención, la asistencia y la inserción, que serán objeto de regulación a lo largo de su articulado, incluyendo la expresa definición de sus contenidos.

El Capítulo II, destinado a la prevención de drogodependencias, contiene la regulación de las medidas generales de prevención del consumo de drogas, el control de los medicamentos estupefacientes y psicotropos, y el establecimiento de medidas de control de la promoción, publicidad, venta y consumo de bebidas alcohólicas y tabaco, así como de otras sustancias.

Por su parte, el Capítulo III está dedicado a la asistencia e inserción de los drogodependientes, tanto desde el punto de vista de la asistencia sanitaria como desde el de la asistencia prestada por los servicios sociales.

La organización y la participación social se encuentran reguladas en el Capítulo IV, en el que se establece la ordenación y coordinación entre Administraciones de la Comunidad Autónoma vasca, y la composición y ámbito de actuación en estas materias de la Comisión Interdepartamental y del Consejo Asesor de

dungo duen ere adierazten da. Horrekin guztiarekin batera, erakunde bakoitzak zer ikertu beharko duen eta finantziazioaren arloan zenbateko konpromisoa izango duen ere zehaztuta dago, betiere zehaztu diren helburuak lortzeko.

Bukatzeko, V. kapituluan zigor-erregimen berria zehaztu da, legean jasotzen diren arauetan esaten direnak benetan betetzen saiatzeko. Aurreko legearekin arazoak izan ziren arlo hau behar bezala aurrera eramateko, eta arazo horiei irtenbidea aurkitu nahi zaie oraingoan.

Legegintza-sistematikak sistemak hala eskatzen duelako, lege honetan oinarrizko legeriako edo Estatuaren aginpide osoko legeriako gai batzuk ere jaso dira. Estatuaren aginpide osoko gai horiek berrikusi eta aldaketaren bat izaten bada, lege honetakoak ere automatikoki aldatutzat joko dira. Gai horri lotuta, oinarrizko legeria aldatu egiten baldin bada, indarrean jarraituko dute bateragarriak diren aginduek edo Estatuko legeriako printzipio berriak gatazkarik gabe interpretatzea ahalbidetzen dutenek, Autonomia Erkidegoko legeria berariaz egokitzen ez den artean behintzat.

Berrikuntza nagusiak bi arlotakoak dira: hasteko, Iruzurrezko Publizitatearen Batzordeari zigortzeko ahalmena kendu egin zaio, Konstituzio Auzitegiak irailaren 19an emandako 146/1996 Epaian esaten dena betez. Epai horretan esaten denez, legearen kontrako iragarkiak bertan behera utzi eta aldatzea jurisdikzioen eginkizuna izan behar da. Bestetik, zigortzeko ahalmena, orokorrean, alkateen esku utzi da, herritarrarengandik gertuago dagoelako administrazio-organo hori, eta organo horrentzat errazagoa delako legean aurreikusitako betebeharrak betetzen diren edo ez kontrolatzea. Dena den, zenbait kasutan zigortzeko ahalmena beste organo batzuen eskuetan egongo da, ondorengo egoeretakoren bat gertatzen baldin bada: jarri beharreko diru-zigorra organo horrek jarri ahal duena baino handiagoa baldin bada, edo arrazoi materialen bat baldin badago, esate baterako legez kanpoko jarduna udalaz gaindikoa izatea, edo, bestela, lurraldeak zerikusirik ez izatea, edo organo horrek (alkateak) kontrolatu ahal izateko arazo bereziak edukitzea. Bukatzeko, oinarrizko araudiak dioena betetzeko, Gobernu Kontseiluaren eskuetan utzi da hamabost milioi pezeta baino gehiagoko zigorrak jartzeko eskumena, eta baita ere dena delako tegi, lokal edo enpresako jarduera aldi baterako ixtea, guztiz edo zati batean. Hori egiteko, zigorra nolakoa den izango da kontuan, eta ez arauhaustea nolakoa den.

## I. KAPITULUA
## LEGEAREN HELBURUA

*1. artikulua.–* Legearen helburua.

1.– Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku jartzen dituen eskumenen barruan, eta lurralde-eremu horretarako, hainbat jarduera arautu nahi ditu lege honek, hain zuzen ere drogamenpekotasu-

Drogodependencias, con expresa mención de las labores de investigación y de los compromisos de financiación entre los distintos niveles institucionales para la consecución de estos objetivos.

Por último, el Capítulo V contiene un nuevo régimen sancionador que persigue el cumplimiento efectivo de los preceptos contenidos en la ley, intentando solventar las dificultades que planteó la ley anterior para la correcta articulación de esta materia.

Es preciso destacar que, por razones de sistemática legislativa, la presente ley incorpora aspectos de la legislación básica o exclusiva del Estado, los cuales se entenderán automáticamente modificados en el momento en que se produzca la revisión de la legislación estatal. En este sentido, en el supuesto de modificación de la legislación básica, continuarán vigentes los preceptos que sean compatibles o permitan una interpretación armónica con los nuevos principios de la legislación estatal mientras no exista adaptación expresa de la legislación autonómica.

Las novedades principales afectan a dos cuestiones: en primer lugar, se ha vaciado de competencia sancionadora a la Comisión de Publicidad Engañosa, en cumplimiento de la Sentencia del Tribunal Constitucional 146/1996, de 19 de septiembre, que estableció que las acciones de cesación y rectificación de la publicidad ilícita deben residenciarse en sede jurisdiccional; en segundo lugar, la competencia sancionadora se ha atribuido con carácter general a los Alcaldes, por tratarse de un órgano administrativo que goza de mayor inmediatez y accesibilidad para el ciudadano, así como de mayor facilidad para controlar el cumplimiento de las obligaciones previstas en la ley. Únicamente para sanciones pecuniarias que excedan el límite cuantitativo para el que está facultado este órgano, así como por razones materiales tales como tratarse de actividades ilícitas supramunicipales, casos en que el referente territorial resulte intrascendente, o especiales dificultades de control para este órgano, la competencia sancionadora se residencia en otros órganos. Por último, y en cumplimiento de la normativa básica, se ha atribuido al Consejo de Gobierno la imposición de sanciones pecuniarias de más de quince millones, así como el cierre temporal, total o parcial de la actividad del establecimiento, centro, local o empresa, atendiendo al carácter específico de la sanción y no de la infracción.

## CAPÍTULO I
## DEL OBJETO DE LA LEY

*Artículo 1.–* Objeto de la ley.

1.– La presente ley tiene por objeto regular, en el marco de las competencias que estatutariamente corresponden a la Comunidad Autónoma vasca y dentro de su ámbito territorial, un conjunto de actuaciones enca-

nei aurrea hartu, drogamenpekoei lagundu eta pertsona horiek gizarteratzea bultzatzeko.

2.– Era berean, legeak droga-kontsumitzaile ez diren pertsonak ere babestu nahi ditu, beste batzuek droga-kontsumitzeak kalte eragin diezaiekeelako.

*2. artikulua.–* Definizioak.

1.– Lege honek izango dituen ondorioetarako, jarraian aipatzen diren gaiak dira drogak: organismoari emanda, jokabidea aldatzea eragin dezaketen, osasunarentzat ondorio kaltegarriak izan ditzaketen edo menpekotasuna eragin dezaketen gaiak; bereziki hauek dira:

a) Nazioarteko konbentzioek zehaztutako sorgorgarri eta psikotropoak (eskumena duen erakunde publikoak kontrolpean dituenean) eta gai horiek dituzten sendagaiak.

b) Alkoholdun edariak.

c) Tabakoa.

d) Etxean edo industrian erabiltzeko zenbait produktu eta lurruntzen diren gaiak, erregelamendu bidez drogatzat jotzen badira.

2.– Beste definizio batzuk:

a) Menpekotasuna: dena delako gaia behin eta berriz barneratzearen ondorioz sortzen den egoera psiko-organikoa. Ezaugarri hau du: droga hartzea beharrezkoa izatea, modu jarraituan izan ere.

b) Aurrezaintza edo aurrea hartzea: drogak modu desegokian kontsumitzea ekar dezaketen pertsonaren baitako, gizarteko edo kulturako eragileak aldatu nahi dituzten jarduerak. Jarduera horiek helburu hauek izango dituzte:

1.– Drogen eskaria eta kontsumoa murriztea.

2.– Gizartean dagoen droga-eskaintza murriztu edo mugatzea.

3.– Drogak kontsumitzeagatik sor daitezkeen ondorioak murriztea.

4.– Drogak hartzen hasteko arrisku-egoerak sor ditzaketen arrazoi sozio-ekonomikoak edo lan arlokoak adieraztea, bai eta drogamenpekotasunen gertakariak duen eragina eta garrantzi soziala murriztea ere, ekintzarako proposamenak aurkeztuz eta gure gizarteko alderik behartsuenetan arreta berezia ipiniz.

c) Pozoigabetzea: substantzia psikoaktibo eta exogeno batek gorputzean sortutako menpekotasun fisikoa bertan behera uzteko prozesu terapeutikoa.

d) Ohituragabetzea: menpekotasuna bertan behera utzi edo gutxitzeko eta gorputzaren eta buruaren osasuna berreskuratzeko prozesu terapeutikoa; prozesu horretan osasun-laguntza eta gizarte-zerbitzuen laguntza sartzen da.

minadas a la prevención de las drogodependencias y a la asistencia e inserción de las personas drogodependientes.

2.– El objeto se extiende, asimismo, a actuaciones que protejan a terceras personas de perjuicios que pueden causarse por el consumo de drogas.

*Artículo 2.–* Definiciones.

1.– A los efectos de la presente ley, se consideran drogas aquellas sustancias que, administradas al organismo, sean capaces de provocar cambios en la conducta, producir efectos perniciosos para la salud o crear dependencia. En particular:

a) Los estupefacientes y psicotropos que determinen las convenciones internacionales y se sometan a medidas de fiscalización por la autoridad pública competente, así como los medicamentos que los contengan.

b) Las bebidas alcohólicas.

c) El tabaco.

d) Los productos de uso doméstico o industrial y las sustancias volátiles que reglamentariamente se determinen.

2.– Se entiende por:

a) Dependencia: estado psico-orgánico que resulta de la absorción repetida de una sustancia, caracterizado por una tendencia al consumo compulsivo y continuado de la misma.

b) Prevención: conjunto de actuaciones dirigidas a modificar factores personales, sociales y culturales que pudieran ser favorecedores de consumos inadecuados de drogas. Dichas actuaciones tendrán como objeto:

1.– Reducir la demanda y consumo de drogas.

2.– Reducir o limitar la oferta de drogas en la sociedad.

3.– Reducir las consecuencias que de su consumo pueden derivarse.

4.– Señalar las causas socio-económicas o laborales que pueden producir situaciones de riesgo de cara a iniciarse en el consumo de drogas así como reducir el impacto y trascendencia social del fenómeno de la drogodependencia, planteando propuestas de actuación y haciendo especial hincapié en aquellas áreas más deprimidas de nuestra comunidad.

c) Desintoxicación: proceso terapéutico orientado a la interrupción de la dependencia física producida por una sustancia psicoactiva exógena al organismo.

d) Deshabituación: proceso terapéutico para la eliminación o disminución de una dependencia y para recuperar la salud física y mental, comprendiendo la asistencia tanto sanitaria como de servicios sociales.

e) Gizarteratzea: dena delako pertsona bere ohiko ingurunean pertsona arduratsu eta autonomo gisa egokitzeko prozesua; prozesu horretan gizarteratzeko gaitasunak berreskuratzen ditu norbanakoak, eta gizartean ere aldaketak egiten dira, drogamenpekotasunak dituzten pertsonak onartzeko.

f) Kalteak murriztea: drogak hartzeko zenbait moduk edo horiek eragindako patologiek sor ditzaketen ondorio bereziki kaltegarriak murrizteko estrategia batzuk.

g) Arriskuak gutxitzea: drogak erabiltzeari lotuta, osasunarentzat bereziki larriak izan daitezkeen ondorioak areagotzea eragin dezaketen jokabideak aldatzeko asmoa duten estrategiak.

h) Tarteko helburuak: ohituragabetzeko prozesuen baitako laguntzako zenbait jarduera dira, eta asmoa gaixotzeko joera handia duen drogamenpeko kontsumitzailearen osasuna eta bizitza-kalitatea hobetzea da.

## II. KAPITULUA
## DROGAMENPEKOTASUNAK AURREZAINTZEA

*3. artikulua.–* Helburu orokorrak.

Aginte publikoen egimkizuna da, bakoitzaren eskumenen barruan, ondorengo helburuak dituzten programak eta jarduerak garatzea, sustatzea, laguntzea, koordinatzea eta kontrolatzea:

a) Herritar guztiei drogei buruzko informazio egokia ematea.

b) Herritarrei osasunarentzat mesedegarriak diren ohiturak sortzeko heziketa eskaintzea. Hezkuntza-programa horietan bereziki kontuan hartua izango da gazteria.

c) Drogamenpekotasunei aurrea hartzeko profesionalak prestatzea.

d) Menpekotasuna eragin dezaketen gaiak kontsumitzea ekar dezaketen gizarteko baldintzetan parte hartzea; bereziki kontuan hartuko da emakumeek eta gizonek drogak kontsumitzea dakarten eragileak ezberdinak direla. Kontsumo horren ondorioak ere kontuan hartuko dira.

e) Elkarte-aurrezaintzako programak abian jarri eta garatzea bultzatzea, drogamenpekotasunei aurrea hartzeko politikak eraginkorrak izateko.

f) Drogak kontsumitzearen ondorioz osasunari eragin dakiokeen kaltea saihesteko neurriak hartzea, kontuan izanik kalte hori kontsumitzaileak eta kontsumitzaile ez denak ere jasaten duela.

g) Gizartean drogak agertzea, sustatzea eta saltzea alde batera uztea eta, bestela, mugatzea.

h) Administrazio publikoen eta arazo honekin zerikusia duten gizataldeen artean, droga-kontsumoa au-

e) Inserción: proceso de incorporación de una persona a su entorno habitual como ciudadano responsable y autónomo, en el que se incluyen tanto la recuperación de las capacidades individuales de integración social como los cambios sociales necesarios para la aceptación de las personas drogodependientes.

f) Reducción de daños: estrategias de intervención dirigidas a disminuir los efectos especialmente negativos que pueden producir algunas formas del uso de drogas o de las patologías asociadas al mismo.

g) Disminución de riesgos: estrategias de intervención orientadas a modificar las conductas susceptibles de aumentar los efectos especialmente graves para la salud asociados al uso de drogas.

h) Objetivos intermedios: conjunto de actuaciones asistenciales, integradas en los procesos de deshabituación, con el objetivo de mejorar la salud y la calidad de vida del consumidor o la consumidora dependiente de alta cronicidad.

## CAPÍTULO II
## DE LA PREVENCIÓN DE DROGODEPENDENCIAS

*Artículo 3.–* Objetivos generales.

Corresponde a los poderes públicos, en su respectivo marco de competencias, desarrollar, promover, apoyar, coordinar y controlar los resultados de programas y actuaciones tendentes a:

a) Informar adecuadamente a la población en general sobre las drogas.

b) Educar a la población en la creación de hábitos para la salud. En estos programas de educación se tendrá en cuenta de forma especial a la juventud.

c) Formar profesionales en materia de prevención de las drogodependencias.

d) Intervenir sobre las condiciones sociales que inciden en el consumo de sustancias capaces de generar dependencia, considerando especialmente los factores diferenciales que inciden en las mujeres y los hombres en el consumo de drogas y sus consecuencias.

e) Potenciar la implantación y desarrollo de programas de prevención comunitaria necesarios para que las políticas de prevención de las drogodependencias sean efectivas.

f) Adoptar medidas que tiendan a evitar los perjuicios para la salud que se derivan del consumo de drogas, no sólo para las personas consumidoras, sino también para terceras personas.

g) Eliminar y, en su caso, limitar la presencia, promoción y venta de drogas en el medio social.

h) Coordinar e impulsar, entre las Administraciones públicas y los diferentes colectivos sociales implicados

rrezaintzea xede izango duten jarduerak koordinatu eta bultzatzea.

1. ATALA
DROGAK KONTSUMITZEA AURREZAINTZEKO NEURRI OROKORRAK

*4. artikulua.*– Elkarte-aurrezaintza.

1.– Udalek Drogamenpekotasunen Udal Plana idatziko dute, lege honetako 36.4 artikuluan erabakitakoaz bat eta erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

2.– Horretarako:

a) Drogamenpekotasunei aurrea hartzeko elkarte-aurrezaintzarako programak garatzea bultzatuko dute.

b) Lege honetako 37.1 artikuluan araututako Drogamenpekotasunen Planetik sortutako aurrezaintzako programak eta jarduerak bultzatu, koordinatu eta, beharrezkoa bada, betearaziko dituzte ikastetxeetan, gazte-, kultur eta kirol-elkarteetan eta profesional-taldeetan, bai eta lantokietan ere.

c) Drogamenpekotasunaren arloan, gizarte-ekimenarekin eta bolondresekin elkarlanean jardutea bultzatuko dute, lege honetako IV. kapituluko 3. atalean erabakitakoaz bat.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak udalekin elkarlan egokian jarduteko bideak jarriko ditu, hain zuzen ere drogamenpekotasunen elkarte-aurrezaintzako ekintzak aurrera eraman ahal izateko.

*5. artikulua.*– Informazioa.

1.– Drogamenpekotasunen berri (arrazoien eta ondorioen berri) emateko estrategiak landuko dituzte administrazio publikoek, droga-kontsumoari buruzko jarrerak eta ohiturak aldatzeko asmoz. Horretarako, hedabideei, bereziki eta lehentasunez jabetza publikokoei, elkarlanean jarduteko eskatuko diete, gizarteak osasunaren aldeko iritzia izatea bultzatzeko.

2.– Drogamenpekotasunei aurrea hartzeko erakundeek bultzatutako kanpainak aurrera eraman ahal izateko, Drogamenpekotasunen Sailen arteko Batzordeak (lege honetako 40. artikuluan arautzen da batzorde hori) doako tarteak izango ditu iragarkientzat, Autonomia Erkidegoan titularitate publikokoak diren hedabideetan. Iragarkientzako denbora gehienez ere iragarkientzat utzitako denboraren %5ekoa izango da, batzordeak berak aukeratutako ordutegiaren barruan. Bestalde, denbora-tarte hori kanpainek iraungo duten artean izango dute erakundeek.

Euskal administrazio publikoek eta horien menpe dauden erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek zein enpresa publikoek, beren aginpideen esparruan, laguntza emango dute erakundeek bultzatutako kanpaina horiek zabaltzeko, haien ti-

en esta problemática, las actividades tendentes a prevenir el consumo de drogas.

SECCIÓN 1.ª
DE LAS MEDIDAS GENERALES DE PREVENCIÓN DEL CONSUMO DE DROGAS

*Artículo 4.*– Prevención comunitaria.

1.– Los Ayuntamientos elaborarán un Plan Local de Drogodependencias conforme a lo dispuesto en el artículo 36.4 de la presente ley, y en los términos que se establezcan reglamentariamente.

2.– A tales efectos:

a) Fomentarán el desarrollo de programas de prevención comunitaria de las drogodependencias.

b) Impulsarán, coordinarán y, en su caso, ejecutarán la aplicación de programas de prevención y actuaciones derivadas del Plan de Drogodependencias regulado en el artículo 37.1 de la presente ley en los ámbitos de la comunidad, tales como centros educativos, asociaciones juveniles, culturales y deportivas y colectivos de profesionales, así como los centros de trabajo.

c) Promoverán la colaboración con la iniciativa social y el voluntariado en materia de drogodependencias, de conformidad con lo dispuesto en la Sección 3.ª del Capítulo IV de la presente ley.

3.– La Administración General de la Comunidad Autónoma establecerá con los Ayuntamientos las adecuadas relaciones de colaboración, en orden al desarrollo de las actuaciones de prevención comunitaria de las drogodependencias.

*Artículo 5.*– Información.

1.– Las Administraciones públicas promoverán estrategias de comunicación sobre el fenómeno de las drogodependencias, sus causas y sus efectos a fin de modificar actitudes y hábitos en relación a su consumo, e interesarán en las mismas a los medios de comunicación, especial y preferentemente a los de titularidad pública, como colaboradores en la creación de estados de opinión en defensa de la salud.

2.– Para la difusión de sus campañas institucionales sobre prevención de las drogodependencias, la Comisión Interdepartamental de Drogodependencias, regulada en el art. 40 de la presente ley, dispondrá de espacios gratuitos de publicidad en los medios de comunicación de titularidad pública de la Comunidad Autónoma, con un máximo del 5% del tiempo dedicado a la publicidad en cada una de las franjas horarias elegidas por la propia Comisión y durante todo el tiempo que duren las campañas.

Las Administraciones públicas vascas, los organismos autónomos, entes públicos de Derecho privado y empresas públicas dependientes de las mismas contribuirán a la difusión de las referidas campañas institucionales, en el ámbito de sus competencias, mediante la

tularitatekoak diren barruko zein kanpoko publizitategune edo -tokiak utziz.

3.– Osasun-administrazioak, epidemien berri emateko eta epidemiak zaintzeko sistemen bidez, drogamenpekotasunen ondorioz laguntza zenbat aldiz ematen den, morbilitatea zenbatekoa den eta zenbat pertsona hiltzen diren zehaztuko du.

4.– Era berean, osasun-sareen barruan informaziozerbitzuak sortu eta jartzea bultzatuko du osasun-administrazioak, eta informazio-zerbitzu horiek informazioa, aholkularitza eta orientazioa eskainiko diete osasun-zerbitzuen erabiltzaileei eta osasunaren arloko profesionalei, drogamenpekotasunei aurrea hartzeari eta tratamenduari buruz.

5.– Lan-administrazioak, Osalan-en bidez, lanmunduan drogak kontsumitzeak dituen ondorioei buruzko informazioko eta prestakuntzako jarduerak burutuko ditu langileentzako, sindikatuetako ordezkarientzako eta enpresarientzako. Era berean, enpresek beren aldetik informazioko ekintzaren bat aurrera eramaten baldin badute, laguntza emango die horiei lan-administrazioak.

6.– 39. artikuluan aipatzen den laguntzako organoak drogamenpekotasunen aztergune bat izango du, ondorengo helburu orokorra duela: gizarteari drogamenpekotasunen ikuspegi zabala eskaintzea, aztergunean bertan landutako edo sortutako informazioan oinarrituta. Informazio horren hartzaileak drogamenpekotasunen inguruan diharduten pertsonak eta erakundeak izango dira, profesionalki diharduten direla edo borondatez diharduten direla. Lan hori aurrera eraman ahal izateko, drogen inguruan diharduten agente guztiei drogamenpekotasunei buruz duten informazioa eskatuko die azterguneak.

7.– Eusko Jaurlaritzak ondorengoak sustatuko ditu:

a) Epidemiei, ekonomiari eta gizarteari buruzko aldian aldiko inkestak eta azterketak, drogamenpekotasunek zenbateko eragina eta indarra duten eta zer nolako arazoak sortzen dituzten ezagutzeko Inkesta horiek Eustat-en bitartez egingo dira ahal dela.

b) Drogamenpekotasunengatik gizartean, osasun arloan eta ekonomian sortzen diren arazoekin zerikusia duten ikerketa- eta azterketa-ildoak eta prestakuntza.

c) Aurrezaintzako, laguntzako eta gizarteratzeko programak ebaluatzea.

d) Drogamenpekotasunen inguruan dagoen dokumentazioa hobetzea. Edozein erakunde publiko zein pribatuk, profesionalek eta interesa duten guztiek dokumentu horiek aztertzeko aukera izatea bermatu beharko du.

Jarritako helburu horiek lortzen laguntzeko, Eusko Jaurlaritzak beharrezko lankidetza-hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu, eta horretarako lehentasuna izango dute Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskal Herriko beste unibertsitateek.

cesión de los espacios o lugares tanto interiores como exteriores destinados a publicidad de los que sean titulares.

3.– La Administración sanitaria determinará, a través de los sistemas de información y vigilancia epidemiológica, la frecuencia asistencial, la morbilidad y mortalidad por drogodependencia.

4.– Así mismo, la Administración sanitaria promoverá la creación y ubicación de servicios informativos integrados en las redes sanitarias que elaboren y faciliten información, asesoramiento y orientación a las personas usuarias de los servicios sanitarios y a los y las profesionales de la sanidad sobre la prevención y tratamiento de las drogodependencias.

5.– La Administración laboral, a través de Osalan, realizará actividades informativas y formativas acerca de los efectos del consumo de drogas en el ámbito laboral con destino a trabajadores y trabajadoras, representantes sindicales y empresarios y empresarias. Asimismo, se apoyarán las acciones informativas que por su cuenta realicen las empresas.

6.– El órgano de apoyo y asistencia al que se refiere el artículo 39 mantendrá un Observatorio de Drogodependencias cuyo objetivo general será proporcionar a la comunidad una visión de conjunto del fenómeno de las drogodependencias a través de la información tratada o producida en el observatorio, siendo sus destinatarias todas aquellas personas y entidades que profesional o voluntariamente intervienen en drogodependencias. A estos efectos, el observatorio recabará de todos los agentes implicados la información que éstos posean sobre drogodependencias.

7.– El Gobierno Vasco promoverá:

a) Encuestas periódicas y estudios epidemiológicos, económicos y sociales para conocer la incidencia, prevalencia y problemática de las drogodependencias. Dichas encuestas se realizarán preferentemente a través del Eustat.

b) Líneas de investigación, estudio y formación en relación con la problemática social, sanitaria y económica relativa a las drogodependencias.

c) La evaluación de los programas de prevención, asistencia e inserción.

d) La mejora de los recursos documentales en materia de drogodependencias, garantizando el acceso a los mismos a todos los organismos públicos y privados, a los profesionales y a cuantos estén interesados en su estudio e investigación.

Para coadyuvar a los objetivos marcados, el Gobierno Vasco podrá suscribir los oportunos convenios de colaboración, a los cuales tendrán acceso preferente la Universidad del País Vasco y el resto de Universidades del país.

*6. artikulua.–* Osasun arloko hezkuntza.

1.– Hezkuntza-administrazioak eta osasun-administrazioak lankidetzan jardungo dute hezkuntzaren esparruan osasuna sustatzeko. Horretarako, eskolako kurrikulumean -maila guztietan- osasunaren inguruko gaiak ere garatuko dituzte eta eskolako giroa osasuntsua izatea bultzatuko dute, bai gorputzari dagokionez eta baita harremanei dagokienez ere. Hori guztia zentroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen duten arauetan jasota egongo da.

Era berean, bi administrazio horiek elkarlanean jardungo dute, ekainaren 30eko 7/1982 Legean, Eskola Osasunari buruzkoan, aurreikusitako prestakuntzako programak aurrera eramateko; programa horiek ikasle, guraso, irakasle eta ikastetxeetako gainerako langileei zuzenduta daude, eta drogen kontsumo desegokiari aurrea hartzeko asmoa dute.

Hori dela eta, hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztiek eta osasun arloko profesionalek parte hartzea bultzatzeaz gainera, drogamenpekotasunen udalplanen baitan aurreikusita dauden jarduerak ere koordinatuko dituzte hezkuntza- eta osasun-administrazioak.

2.– Eusko Jaurlaritzak beharrezko neurriak hartuko ditu unibertsitateko ikasketetan osasunerako hezkuntza eta drogamenpekotasunen inguruko arlo guztiei buruzko prestakuntza egokia jasotzeko beharrezko edukiak sar daitezela bultzatzeko.

*7. artikulua.–* Profesionalen etengabeko prestakuntza.

l) Un o una vocal por cada uno de los Colegios Profesionales de Médicos, Farmacéuticos, Psicólogos, Abogados, Trabajadores Sociales, Educadores Sociales, Diplomados en Enfermería, Doctores y Licenciados en Filosofía y Letras y Periodistas. Cuando los colectivos citados no estén organizados en colegios profesionales, la designación del vocal o la vocal corresponderá a la asociación profesional con más implantación en ese sector.

m) Seis vocales en representación de las organizaciones no gubernamentales que desarrollan tareas específicas en el ámbito de las toxicomanías, designados o designadas a propuesta de las mismas por el Presidente del consejo.

n) Un o una vocal designado o designada por el Instituto Vasco de la Mujer (Emakunde).

ñ) Un o una vocal representante de cada una de las Universidades del País Vasco.

o) Un o una vocal designado o designada por las Asociaciones o Federaciones de Consumidores cuyo ámbito de actuación incluya la totalidad de la Comunidad Autónoma.

De cada uno de estos miembros se designarán los suplentes o las suplentes respectivos o respectivas.

3.– Su estructura, organización y atribuciones se determinarán reglamentariamente.

4.– El Consejo Asesor de Drogodependencias realizará las siguientes funciones:

a) Elaborar cuantos informes, sugerencias, estudios y propuestas estime convenientes, para lo cual podrá re-

har dituen argibideak eskuratu ahal izango dituela. Edonola ere, egindako kudeaketari buruzko analisia jasotzen duen urteko txostena prestatuko du, eta hor urtean zehar gertatu diren aldaketak bilduko dira.

b) Euskal administrazio publikoek azaldutako gaiei buruzko aholkularitza ematea.

c) Lege honen 37.1 artikuluan aipatzen den Drogamenpekotasunen Hirurteko Planaren aurretik derrigorrez eman behar den txostena idaztea.

d) Euskal administrazio publikoek drogamenpekotasunen arloan prestatzen dituzten planak eta arauak aztertu eta, hala balegokio, iritzia ematea.

e) Antolakuntza eta funtzionamenduaren erregelamendua prestatzea.

f) Erregelamendu bidez zehazten den beste edozein eginkizun betetzea.

*42. artikulua.–* Drogamenpekotasunen tokiko batzordeak.

Foru-aldundiek eta udalek, zeinek bere eskumenaren barruan, drogamenpekotasunen foru batzordeak eta udal batzordeak eratu ahal izango dituzte. Batzorde horiek Drogamenpekotasunen Aholku Batzordearen eginkizunen antzekoak izango dituzte.

3. ATALA
GIZARTE–EKIMENA SUSTATU BEHARRA

*43. artikulua.–* Gizarte–ekimena.

1.– Erakunde publikoek, indarrean dauden legeekin bat eginik, hitzarmenak izenpetu eta diru–laguntzak eman ahal izango dituzte, erakunde pribatuek zenbait zerbitzu eskain dezaten.

2.– Aurreko lerroaldean aipaturiko hitzarmenak izenpetzeko edo diru–laguntzak eskuratzeko lehentasuna izango dute gizarte–ekimeneko arlo jakinetan diharduten erakundeek. Hona arloak:

a) Komunitateko aurrezaintza.

b) Drogamenpekoen tratamendua eta laguntza.

c) Osasun–hezkuntza eskolan.

d) Drogamenpekotasunak direla–eta sortzen den gizarte–bazterketa.

e) Drogen erabilera ezegokiarekin batera doazen arriskuak nola hautematen diren gizartean.

*44. artikulua.–* Bolondresak.

Drogamenpekoen aurrezaintzan, laguntzan eta gizarteratzean lagunduko duten bolondresen lana sustatuko da.

cabar la información que precise y, en todo caso, elaborará un informe anual de análisis de la gestión realizada, así como un balance de la situación, en el que se recojan los cambios experimentados sobre la materia durante el año.

b) Asesorar a las Administraciones públicas vascas en aquellas materias que le sean sometidas a su consideración.

c) Emitir informe preceptivo previo del Plan Trienal de Drogodependencias a que se refiere el artículo 37.1 de la presente ley.

d) Analizar y, en su caso, emitir opinión sobre los planes y normas que elaboren las Administraciones públicas vascas en materia de drogodependencias.

e) Elaborar su reglamento de organización y funcionamiento.

f) Cualquier otra función que se determine reglamentariamente.

*Artículo 42.–* Consejos Locales de Drogodependencias.

Las Diputaciones forales y los Ayuntamientos podrán establecer, en el ámbito de sus competencias, Consejos Forales y Locales de Drogodependencias con funciones análogas a las previstas para el Consejo Asesor de Drogodependencias.

SECCIÓN 3.ª
DE LA PROMOCIÓN DE LA INICIATIVA SOCIAL

*Artículo 43.–* Iniciativa social.

1.– Las instituciones públicas podrán establecer conciertos, de conformidad con la legislación vigente, y conceder subvenciones para la prestación de servicios por las instituciones privadas.

2.– Para la celebración de los conciertos y para la concesión de las subvenciones mencionadas en el párrafo anterior, tendrán carácter preferente las instituciones que operen en los siguientes ámbitos de actuación de la iniciativa social:

a) La prevención en el ámbito comunitario.

b) El tratamiento y asistencia de personas drogodependientes.

c) La educación para la salud en el medio escolar.

d) La exclusión social producida por las drogodependencias.

e) La percepción social de los riesgos asociados al uso inadecuado de drogas.

*Artículo 44.–* Voluntariado.

Se fomentará la función del voluntariado que colabore en las tareas de prestación de servicios de prevención, asistencia e inserción de drogodependientes.

*45. artikulua.*– Irabazi–asmorik gabeko erakundeak.

Drogamenpekotasunen arloan administrazio publikoekin batera elkarlanean aritzen diren irabazi–asmorik gabeko erakundeei daukaten merezimendua aitortuko zaie, horretarako dauden arauekin bat eginez. Hori dela–eta:

a) Herri–onurakotzat jo ahal izango dira, berariazko legeetan ezarritakoari jarraiki.

b) Esandako helburuak betetzearren, lehentasuna izango dute laguntzak eta diru-laguntzak banatzen direnean, baina aurrez homologazioa beharko dute izan.

V. KAPITULUA
ARAUHAUSTEAK ETA ZIGORRAK

*46. artikulua.*– Arauhausteak.

1.– Lege honetan arauturiko gaien barruan honako hauek izango dira administrazio–arauhausteak: lege honetan tipifikaturiko egite eta ez-egiteak, benetan burutu badira, eta inolaz ere baztertu gabe egite eta ez-egite horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizun zibil, penal edo bestelakoak.

2.– Ondoko hauek jotzen dira arauhaustetzat:

a) 5.2 artikuluko lehenengo zatian an agindutako eginbeharra ez betetzea.

b) Alkoholdun edarien eta tabakoaren publizitateari eta kontsumo–sustapenari ezarritako mugak, 13, 14, 15, 16, 17 eta 18.1, 2 eta 3 artikuluetan jarritakoak, ez betetzea.

c) Alkoholdun edariak, tabakoa eta beste substantzia batzuk banatzeari eta saltzeari jarritako mugak, 20, 21 eta 25. artikuluetan jarritakoak, ez betetzea.

d) Alkoholdun edarien eta tabakoaren kontsumoari ezarritako mugak, 22 eta 23. artikuluetan jarritakoak, ez betetzea.

e) Diagnostikatzeko, pozoigabetzeko eta ohituragabetzeko osasun–laguntza ematen duten zentroek 31.1 artikuluaren erregimena ez betetzea, hots, aurretiazko baimenaren eta izen–ematearen erregimena.

*47. artikulua.*– Arauhauste–motak.

1.– Aurreko administrazio–arauhausteak honela sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak.

2.– Arauhauste arinak izango dira:

a) 14, 16.2 eta 25. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, betiere horrelako jokabideek arrisku edo kalte larririk ez badakarkiote osasunari.

b) 23.2 eta 9 artikuluan ezarritakoa ez betetzea.

c) 23.5, 6 eta 7 artikuluan aipatzen den erretzaileentzako aldeak ez seinaleztatzea edo gaizki seinaleztatzea.

*Artículo 45.*– Entidades sin ánimo de lucro.

Las entidades e instituciones sin finalidad de lucro que colaboren con las Administraciones públicas en materia de drogodependencias serán especialmente consideradas y reconocidas, de acuerdo con la reglamentación al efecto. En este sentido:

a) Podrán ser declaradas de utilidad pública en los términos previstos en la legislación específica.

b) Tendrán preferencia en la concesión de subvenciones y ayudas para el cumplimiento de dichos fines, requiriéndose de forma previa la homologación.

CAPÍTULO V
DE LAS INFRACCIONES Y SANCIONES

*Artículo 46.*– Infracciones.

1.– Son infracciones administrativas en el ámbito de las materias reguladas en la presente ley las acciones y omisiones consumadas tipificadas en la misma, sin perjuicio de las responsabilidades civiles, penales o de otro orden jurídico que pudiesen ser consecuencia de las citadas acciones u omisiones.

2.– Se tipifican como infracciones:

a) El incumplimiento de la obligación señalada en el inciso primero del artículo 5.2.

b) El incumplimiento de las limitaciones de publicidad y promoción del consumo de bebidas alcohólicas y tabaco establecidas en los artículos 13, 14, 15, 16, 17 y 18.1, 2 y 3.

c) El incumplimiento de las limitaciones al suministro y venta de bebidas alcohólicas, tabaco y otras sustancias establecidas en los artículos 20, 21 y 25.

d) El incumplimiento de las limitaciones al consumo de bebidas alcohólicas y de tabaco establecidas en los artículos 22 y 23.

e) El incumplimiento del régimen de autorización previa e inscripción a que están sometidos los centros que presten funciones de asistencia sanitaria para el diagnóstico, desintoxicación y deshabituación, conforme señala el artículo 31.1.

*Artículo 47.*– Clases de infracciones.

1.– Las anteriores infracciones administrativas se clasifican en leves, graves y muy graves.

2.– Se consideran infracciones leves:

a) El incumplimiento de lo establecido en los artículos 14, 16.2 y 25, siempre que tales conductas no causen riesgo ni perjuicio graves para la salud.

b) El incumplimiento de lo establecido en el artículo 23.2 y 9.

c) La falta o incorrecta señalización de zonas diferenciadas para fumadores y fumadoras a que alude el artículo 23.5, 6 y 7.

d) 23.1, 3 eta 4 artikuluan ezarritakoa ez betetzea.

e) Lege honetan arauhauste larritzat edo oso larritzat jotzen ez den beste edozein ez-betetze.

3.– Arauhauste larriak izango dira:

a) Lege honen 5.2 artikuluko lehenengo zatian an ezarritakoa ez betetzea.

b) 14, 16.2 eta 25. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, betiere horrelako jokabideek arrisku edo kalte larria badakarkiote osasunari.

c) 13, 15, 16.1, 17, 18.1, 2 eta 3, 20, 21 eta 22. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, betiere horrelako jokabideek arrisku edo kalte larria badakarkiote osasunari.

d) 23.5, 7 eta 8 artikuluan aipatzen den erretzaileentzako alderik ez egokitzea.

4.– Arauhauste oso larriak izango dira:

a) 14, 16.2 eta 25. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, betiere horrelako jokabideek arrisku edo kalte larria badakarkiote osasunari.

b) 13, 15, 16.1, 17, 18.1, 2 eta 3, 20, 21 eta 22. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, osasunari arrisku edo kalte larria dakarkionean.

c) 31.1 artikuluan ezarritakoari aurka egitea.

*48. artikulua.–* Berrerortze eta errepikatzea.

1.– Lege honen ondorioetarako, arauhauste bat egin duenak izaera bereko beste arauhauste bat egiten badu, urtebeteko epean, eta erabaki irmoz hala aldarrikatu bada, berrerortzea izango da hori.

Izaera bereko arauhaustetzat hartuko da lege honen zigor–erregimenean jasota dagoena eta 47. artikuluko sailkapenaren arabera mota berekoa dena.

2.– Lege honen ondorioetarako, arauhauste bat egin duenak izaera desberdineko beste arauhauste bat egiten badu, urtebeteko epean, eta erabaki irmoz hala aldarrikatu bada, errepikatzea izango da hori.

*49. artikulua.–* Erantzukizuna.

1.– Lege honetan jasota dauden arauhausteen administrazio–erantzukizuna arauhaustea egin duen pertsona fisiko nahiz juridikoari egotziko zaio. Ondorio horietarako, egiletzat hauxe hartuko da:

a) Legean jasota dagoen jokabidea gauzatzen duen pertsona fisiko nahiz juridikoa, bai zuzenean bai beste pertsona batez baliaturik. Azken hori ere hartuko da egiletzat, berak nahita jokatzen badu.

d) El incumplimiento de lo establecido en el artículo 23.1, 3 y 4.

e) Cualquier otro incumplimiento de lo previsto en la presente ley que no se tipifique como infracción grave o muy grave.

3.– Se consideran infracciones graves:

a) El incumplimiento de lo previsto en el inciso primero del artículo 5.2 de la presente ley.

b) El incumplimiento de lo establecido en los artículos 14, 16.2 y 25, cuando tales conductas causen riesgo o perjuicio graves para la salud.

c) El incumplimiento de lo establecido en los artículos 13, 15, 16.1, 17, 18.1, 2 y 3, 20, 21 y 22, cuando tales conductas causen riesgo o perjuicio graves para la salud.

d) La falta de habilitación de zonas diferenciadas para fumadores y fumadoras a que alude el artículo 23.5, 7 y 8.

4.– Se consideran infracciones muy graves:

a) El incumplimiento de lo establecido en los artículos 14, 16.2 y 25, cuando tales conductas causen riesgo o perjuicio muy graves para la salud.

b) El incumplimiento de lo establecido en los artículos 13, 15, 16.1, 17, 18.1, 2 y 3, 20, 21 y 22, cuando causen riesgo o perjuicio muy graves para la salud.

c) La contravención de lo dispuesto en el artículo 31.1.

*Artículo 48.–* Reincidencia y reiteración.

1.– A efectos de la presente ley, existirá reincidencia cuando la persona responsable de la infracción cometiera, en el término de un año, más de una infracción de la misma naturaleza y así se haya declarado por resolución firme.

Será considerada infracción de la misma naturaleza aquélla de las contempladas en el régimen sancionador de esta ley que se refiera al mismo tipo en razón del grupo o clasificación a que alude el artículo 47 de la presente ley.

2.– A efectos de la presente ley, existirá reiteración cuando la persona responsable de la infracción cometiera, en el término de un año, más de una infracción de distinta naturaleza y así se haya declarado por resolución firme.

*Artículo 49.–* Responsabilidad.

1.– La responsabilidad administrativa por las infracciones tipificadas en esta ley se imputará a la persona física o jurídica que cometa la infracción. A estos efectos, se considera autor:

a) La persona física o jurídica que realiza la conducta tipificada, bien sea de forma directa o por medio de otra de la que se sirve de instrumento. Igualmente se considerará autor a esta última, si actúa voluntariamente.

b) Legean jasota dagoen jokabidea gauzatu ahal izateko ezinbestez burutu behar den egintza gauzatzen lagundu duten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

2.– Legeak arauhausterik ez gertatzea zaintzeko jarritako betebeharra betetzen ez duena erantzule solidarioa izango da egilearekin batera; era berean, erantzule solidario izango dira arauhaustea egiten den establezimendu, zentro, lokal edo enpresaren titularrak.

3.– Erantzulea pertsona juridikoa denean, zigortu nahi den egite edo ez-egite zehatzean pertsona haren borondatea eratu duten pertsona fisikoei egotziko zaie erantzukizuna.

*50. artikulua.–* Zigorrak.

1.– Lege honetan jasota dauden arauhausteak egiteak honako zigor hauek ekarriko ditu bere baitan:

a) Ohartarazpena.

b) Isuna.

c) Jarduera aldi baterako etetea eta/edo, hala badagokio, establezimendu, zentro, zerbitzu, lokal edo enpresa aldi baterako ixtea, erabat edo zati batean, bost urtez luzaroen.

d) 1 eta 5 urte bitartean Autonomia Erkidegoaren diru–laguntzarik eskuratzeko debekua.

Aurreko zigorretariko bat ezartzeak arauhaustearekin zuzeneko zerikusia duten salgaien edo gauzen dekomisoa ekarriko du ondorio osagarri gisa.

2.– Zigortzeko jardunbidetik eratorritako administrazio–erantzukizunez gain, arauhaustearen ondorioz aldaturiko egoera leheneratzeko eska dakieke erantzuleei, eta arauhaustearen ondorio diren kalte eta galerengatiko ordainak ere eska dakizkieke. Kalteordaina arauhausteak eragindako kalteak edo galerak berdintzeko izango da.

*51. artikulua.–* Zigorren mailaketa.

1.– Isunen zenbatekoa eta gainerako zigorren maila zehazteko, eskudun organoak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat:

a) Osasunerako eragindako arrisku edo kaltearen larritasuna.

b) Erruduntasun–maila edo asmoa.

c) Gizartean sorturiko asaldura edo eragina.

d) Lorturiko onuraren zenbatekoa.

e) Arauhauslearen egoera ekonomikoa.

f) Arauhausleak merkatuan duen egoera.

g) Berrerortzea eta errepikatzea.

2.– Zigorra neurtu eta mailakatzeko, hurrengo hauek hartuko dira aringarri oso kualifikatutzat:

b) Las personas físicas o jurídicas que cooperen a la ejecución con un acto sin el cual no se hubiera efectuado la conducta tipificada.

2.– Será responsable de forma solidaria junto con el autor la persona que hubiera infringido el deber de vigilancia de prevenir la infracción impuesto por la ley, así como los titulares o las titulares de los establecimientos, centros, locales o empresas.

3.– En el caso de resultar responsable una persona jurídica, el juicio de culpabilidad se efectuará respecto de las personas físicas que hayan formado la voluntad de aquélla en la concreta acción u omisión que se pretenda sancionar.

*Artículo 50.–* Sanciones.

1.– Las infracciones tipificadas en la presente ley darán lugar a la imposición de las siguientes sanciones:

a) Apercibimiento.

b) Multa.

c) Suspensión temporal de la actividad y/o, en su caso, cierre temporal, total o parcial, del establecimiento, centro, servicio, local o empresa, con una duración máxima de cinco años.

d) Prohibición de acceder a cualquier tipo de ayuda pública de la Comunidad Autónoma por un periodo comprendido entre 1 y 5 años.

La imposición de las anteriores sanciones llevará consigo la consecuencia accesoria consistente en el decomiso de las mercancías u objetos directamente relacionados con los hechos constitutivos de la infracción.

2.– Las responsabilidades administrativas que se deriven del procedimiento sancionador serán compatibles con la exigencia a los o las responsables de la reposición al estado originario de la situación alterada por la infracción, así como con la indemnización de daños y perjuicios derivados de la misma, al objeto de reparar los daños o perjuicios ocasionados por la infracción.

*Artículo 51.–* Graduación de las sanciones.

1.– Para la determinación de la cuantía de las multas y la aplicación de las demás sanciones, el órgano competente atenderá a los siguientes criterios de graduación:

a) Gravedad del riesgo o perjuicio generado para la salud.

b) Grado de culpabilidad o intencionalidad.

c) Alteración e incidencia social producidas.

d) Cuantía del beneficio obtenido.

e) Capacidad económica de la persona infractora.

f) Posición de la persona infractora en el mercado.

g) La reiteración y la reincidencia.

2.– Para valorar la sanción y graduarla podrán tenerse en cuenta y se considerarán como atenuantes muy cualificadas:

– Ustezko arauhausleak, galarazitako jarduerak eteteko eskatzen zaionean, eskaera horri jaramon egitea. Lege honen lehenengo xedapen gehigarrian jasotako gertakarian, bertan esaten den moduan egingo da errekerimendua.

– Arauhausleak frogatzea, zigor-espedienteari buruzko erabakia hartu baino lehen eta zuzenbidez baliozko diren bideetatik, jardunbideari ekitea ekarri zuen jokabidearen ondorioak leundu edo erabat zuzendu dituela.

*52. artikulua.–* Zigorrak ezartzea.

1.– Zigorrak honela ezarriko dira:

a) Arauhauste arinengatik ohartarazpena eta/edo 500.000 PTArainoko isuna ezarriko da.

b) Arauhauste larriengatik, 500.001 eta 2.500.000 PTA bitarteko isuna eta/edo jarduera aldi baterako eten eta/edo establezimendua, zentroa, lokala edo enpresa, erabat edo zati batean, itxi bi urterako gehienez.

Eskudun agintariek zigor osagarria jartzea erabaki dezakete, hots, Autonomia Erkidegoko diru–laguntzak eskuratzeko debekua jartzea, gehienez ere bi urtez.

c) Arauhauste oso larriengatik, 2.500.001 eta 100.000.000 PTA bitarteko isuna eta/edo establezimendua, zentroa, lokala edo enpresa, erabat edo zati batean, itxi urte bitik bostera.

Eskudun agintariek zigor osagarria jartzea erabaki dezakete, hots, Autonomia Erkidegoko diru–laguntzak eskuratzeko debekua jartzea, urte bi eta bost bitartean.

2.– 13, 14, 15, 16, 17 eta 18.1 2 eta 3 artikuluak ez betetzeagatik egindako arauhausteen kasuan, eskudun agintariak isunaren zenbatekoa igo ahal izango du legez kanpoko publizitatea ekoitzi eta zabaltzearen kostuaren %10eraino. Hortik bildutako dirua drogamenpekotasunei aurrea hartzeko estrategiak egiten erabiliko da Autonomia Erkidegoko hedabideetan.

3.– Edozein arauhauste egitearekin batera, espedientea erabakitzeko eskumena duen organoak arauhaustearekin zuzeneko zerikusia duten salgaiak edo gauzakiak dekomisatuko ditu, behin–behingoz, ondorio osagarri gisa.

4.– Behar den baimena ez duten establezimenduak, aurkitutako akatsak zuzendu arte, ixteak edo haien jarduera, jarduteko eskatzen diren baldintzak bete arte, eteteak ez du zigor–izaera izango. Ixteko edo eteteko

– Que, requerido el presunto infractor o la presunta infractora para que realice las actuaciones oportunas que den lugar al cese de la infracción, sea atendido dicho requerimiento. En el supuesto previsto en la disposición adicional primera de la presente ley, este requerimiento se realizará en los términos previstos en la misma.

– Que el infractor o infractora acredite, por cualquiera de los medios válidos en derecho y con anterioridad a recaer la resolución del expediente sancionador, que ha mitigado o subsanado completamente las consecuencias que resultaron de la conducta que dio lugar a la iniciación del procedimiento.

*Artículo 52.–* Imposición de las sanciones.

1.– La aplicación de las sanciones se realizará de la siguiente forma:

a) Las infracciones leves serán sancionadas con apercibimiento y/o multa de hasta 500.000 PTA.

b) Las infracciones graves serán sancionadas con multas desde 500.001 PTA hasta 2.500.000 PTA y/o suspensión temporal de la actividad y/o con el cierre temporal, total o parcial, del establecimiento, centro, local o empresa, por un periodo de hasta dos años.

La autoridad competente podrá acordar como sanción complementaria la prohibición de acceder a cualquier tipo de ayuda pública de la Comunidad Autónoma por un periodo de hasta dos años.

c) Las infracciones muy graves serán sancionadas con multa desde 2.500.001 PTA hasta 100.000.000 PTA y/o cierre temporal, total o parcial, de la actividad del establecimiento, centro, local o empresa por un periodo de dos a cinco años.

La autoridad competente podrá acordar como sanción complementaria la prohibición de acceder a cualquier tipo de ayuda pública de la Comunidad Autónoma por un periodo de dos a cinco años.

2.– En el caso de infracciones por incumplimiento de los artículos 13, 14, 15, 16, 17 y 18.1, 2 y 3 la autoridad competente para sancionar podrá elevar el importe de la multa impuesta hasta un 10% del coste de elaboración y difusión de dicha publicidad ilícita. El importe de lo recaudado por este concepto se destinará a realizar estrategias para la prevención de las drogodependencias en los medios de comunicación de la Comunidad Autónoma.

3.– La comisión de cualquier infracción llevará aparejada, y sin perjuicio del carácter, en su caso, de medida provisional, la adopción por el órgano que sea competente para resolver el expediente de la consecuencia accesoria de decomiso de las mercancías u objetos directamente relacionados con los hechos constitutivos de la infracción.

4.– No tendrá carácter de sanción la resolución que establezca el cierre de los establecimientos o suspensión de la actividad o funcionamiento de los mismos que no cuenten con la autorización exigida, hasta que no se sub-

erabakiarekin batera, ordea, zigortzeko espedientea irekitzeko aukera egongo da.

*53. artikulua.–* Iraungitzeen erregimena.

1.– Lege honetan ohartemandako administrazio–zigor oso larriek bost urtera preskribituko dute, larriek bi urtera eta arinek sei hilabetera.

2.– Hutsegite oso larriak egiteagatik ezarritako zigorrek bost urtera preskribituko dute, hutsegite larriek bi urtera eta hutsegite arinek urtebetera.

*54. artikulua.–* Erabakia hartzeko eskumena duten organoak.

1.– Zigortzeko ahalmena hurrengo organo hauei ematen zaie:

a) Alkateei, hurrengo artikuluetan ezarritakoa ez betetzeagatik jarritako zigorra dela–eta:

– 14, 16.2 eta 25. artikuluak, ez-betetze horiek bai arauhauste arintzat jo badira eta bai larritzat jo badira. 16.2 artikuluaren kasuan, arauz kontrako jarduera udalerriz kanpora ateratzen ez denean bakarrik dagokio alkateari zigor–ahalmena.

– 15, 16.1 eta 18.3 artikuluak. Azken kasuan, arauz kontrako jarduera udalerriz kanpora ateratzen ez denean bakarrik dagokio alkateari zigor–ahalmena.

– 20, 21, 22 eta 23. artikuluak, bai arauhauste arintzat jo badira eta bai larritzat jo badira dagozkien artikuluetan.

– Legean jasota dagoen eta arauhauste larritzat edo oso larritzat jota ez dagoen beste edozein ez-betetze.

b) Drogamenpekotasunen arloan eskumena duen saileko organoari dagokio zigor–ahalmena hurrengo kasuotan:

– 5.2 artikulua, lehenengo zatia.

– 14, 16.2 eta 25. artikuluak, oso larritzat jo direnean. 16.2 artikuluaren kasuan, arintzat edo larritzat jotzen bada ere, zigor–ahalmena aipaturiko organoari dagokio arauz kontrako jarduerak udalerriko mugak gainditzen baldin baditu.

– 13, 17, 18.1, 2 eta 3 artikuluak, arauhauste larritzat eta oso larritzat jotakoak, eta 15, 16.1, 20, 21 eta 22. artikuluetako arauhauste oso larritzat jotako ez-betetzeak. 18. artikuluaren hirugarren lerroaldeari dagokionez, arauz kontrako jarduera udalerriz kanpora ateratzen denetan esandako organoari dagokio zigor–ahalmena.

c) Osasun Saileko dagokion organoari, hots, 31.1 artikuluan ezarritakoa ez betetzeagatik zigorra jartzea dagokion organoari.

sanen los defectos apreciados o cumplan los requisitos exigidos para su funcionamiento. Simultáneamente a la resolución de cierre o suspensión, podrá iniciarse un expediente sancionador.

*Artículo 53.–* Régimen de prescripciones.

1.– Las infracciones administrativas previstas en la presente ley prescribirán en los plazos de cinco años, dos años y seis meses, según sea su calificación de muy grave, grave y leve respectivamente.

2.– Las sanciones impuestas por faltas muy graves prescriben a los cinco años, las impuestas por faltas graves a los dos años, y las impuestas por faltas leves al año.

*Artículo 54.–* Órganos competentes para resolver.

1.– La competencia sancionadora se atribuye a los siguientes órganos:

a) A los Alcaldes para la sanción por el incumplimiento de lo previsto en los siguientes artículos:

– Artículos 14, 16.2 y 25, ya se hayan tipificado dichos incumplimientos como infracciones leves o como graves. En el caso del artículo 16.2, esta competencia sancionadora les corresponderá cuando la actividad infractora no exceda del ámbito territorial municipal.

– Artículos 15, 16.1 y 18.3. En este último supuesto esta competencia sancionadora les corresponderá cuando la actividad infractora no exceda del ámbito territorial municipal.

– Artículos 20, 21, 22 y 23, ya se haya establecido en los artículos correspondientes su tipificación como infracciones leves o como graves.

– Cualquier otro incumplimiento previsto en la ley que no se tipifique como infracción grave o muy grave.

b) Al órgano correspondiente del Departamento competente en materia de drogodependencias le corresponderá la sanción por incumplimiento de lo previsto en los siguientes artículos:

– Artículo 5.2, inciso primero.

– Artículos 14, 16.2 y 25, cuando se hayan tipificado como muy graves. En el caso del artículo 16.2, aun cuando se tipifique de leve o grave, la competencia sancionadora le corresponderá siempre que la actividad infractora exceda del ámbito territorial municipal.

– Artículos 13, 17, 18.1, 2 y 3, tipificadas como graves o muy graves, y los incumplimientos tipificados como infracciones muy graves de los artículos 15, 16.1, 20, 21 y 22. En relación con el párrafo tercero del artículo 18, la competencia sancionadora le corresponderá siempre que la actividad infractora exceda del ámbito territorial municipal.

c) Al órgano que corresponda en el Departamento de Sanidad para la sanción del incumplimiento de lo establecido en el artículo 31.1.

d) Gobernu Kontseiluari, 15.000.000 PTAtik gorako isunak ezartzea, eta establezimendua, zentroa, lokala edo enpresa, erabat edo zati batean, aldi baterako ixtea.

2.– Espedientea izapidatzeko arduraduna edozein unetan ohartzen bada zigortzeko ahalmena ez dagokiola bere Administrazioari, ahalmen hori daukanari igorriko dio espedientea, eta prozedura eten zen puntutik abiatuko dira izapideak.

3.– Aurreko lerroaldeetan ezarritakoari ezer kendu gabe, udal batek arauhauste bat zigortzeko ahalmena erabiltzen ez badu, Eusko Jaurlaritzak errekerimendua bidaliko dio, eta bi hilabete igaro ondoren, kasuan kasuko gaiaren arabera eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoak zigor-espedientea hasi, izapidatu eta erabaki egingo du.

4.– Eusko Jaurlaritzako eskudun organoek eta toki–administraziokoek elkarri emango diote izapidaturiko espedienteen berri, espedienteari hasiera ematea erabaki eta hurrengo hamar eguneko epean.

*55. artikulua.–* Zigortzeko jardunbidea.

Zigortzeko ahalmenaz baliatzeko, Estatuko oinarrizko legerian eta Euskal Herriko administrazio publikoen zigortzeko ahalmena arautzen duen legerian agindutakoari jarraituko zaio.

*56. artikulua.–* Lotura juridiko bereziak.

Administrazio publikoetan lan egiten dutenei eta kontratu–bidez administrazio horiekin loturik daudenei ez zaie esandako zigor–jardunbidea aplikatuko, baizik eta kidego horietako bakoitzak berariaz daukana.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.–* Legearen kontrako iragarkiak bertan behera uztea eta aldatzea.

Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorraren IV. tituluan administrazio–organoei ematen zaien ahalmena, iragarki-jartzaileari iragarkiak bertan behera utzi edo alda ditzala eskatzeko, drogamenpekotasunen arloan eskumena duen organoari dagokio, lege honen gaiaren barruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esparruan. Foru- eta toki–administrazioek, berriz, berek izendatuko dituzte eskumen hori izango duten organoak.

*Bigarrena.–* Kopuruak eguneratzea.

Baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari lege honen 52.1 artikuluan finkaturiko gutxienezko eta gehienezko kopuruak eguneratzeko.

d) Al Consejo de Gobierno para la imposición de multas de más de 15.000.000 de pesetas, así como del cierre temporal, total o parcial, de la actividad del establecimiento, centro, local o empresa.

2.– Si durante la tramitación del expediente el instructor designado estimara que la competencia para sancionar no corresponde a la Administración a la que pertenece, remitirá las actuaciones a la que la ostente, que las continuará a partir de la fase de procedimiento en que se hallen.

3.– Sin perjuicio de lo previsto en los párrafos anteriores, en el supuesto de que un municipio se inhiba en el ejercicio de su competencia de persecución de una infracción, transcurrido el plazo de dos meses desde el requerimiento al mismo los órganos del Gobierno Vasco, según el respectivo ámbito competencial que corresponda de acuerdo con la materia de la que se trate, asumirán la competencia de incoación, instrucción y resolución del concreto expediente sancionador.

4.– Los órganos competentes del Gobierno Vasco y de la Administración local se informarán recíprocamente de los expedientes que se tramiten, en el plazo de diez días contados a partir de la fecha de la resolución de incoación.

*Artículo 55.–* Procedimiento sancionador.

El ejercicio de la potestad sancionadora se ajustará a lo establecido en la legislación básica del Estado y en la que regule la potestad sancionadora de las Administraciones públicas del País Vasco.

*Artículo 56.–* Relaciones jurídicas especiales.

No se aplica el anterior régimen sancionador a las personas vinculadas a las Administraciones públicas por una relación contractual, así como al personal al servicio de las mismas, a las que se aplicarán las normas que regulan su concreto régimen sancionador.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Cesación y rectificación de publicidad ilícita.

La competencia que el Título IV de la Ley 34/1988, de 11 de noviembre, General de Publicidad, atribuye a los órganos administrativos para solicitar del o la anunciante la cesación o, en su caso, la rectificación de la publicidad contenida en la presente ley corresponderá, en el ámbito de la Administración General del País Vasco, al órgano competente en materia de drogodependencias. Por su parte, las Administraciones forales y locales designarán los órganos encargados de ejercitar la mencionada competencia.

*Segunda.–* Actualización de cuantías.

Se autoriza al Gobierno Vasco para actualizar las cuantías mínimas y máximas fijadas en el artículo 52.1 de la presente ley.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Xedapenen atzeraindarrik eza.

Azaroaren 11ko 15/1988 Legearen eraginpean hasitako zigor–espedienteak lege horren arabera jarraituko dira erabat amaitu arte, nahiz eta lege honetan ezarritako zigorrek atzeraindarra izango duten, arauhauslearentzat onuragarriagoak badira.

*Bigarrena.–* Egokitzeko epea.

Lege hau indarrean jartzen denetik, hiru hilabeteko epea izango da legearen edukiak eskatzen dituen egokitze materialak egiteko.

INDARGABETZEKO XEDAPEN BAKARRA

1.– Lege honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko arau guztiak indargabetu egiten dira.

2.– Hurrengo xedapen hauek berariaz indargabetzen dira:

a) 15/1988 Legea, azaroaren 11koa, Drogamenpekoen alorreko Aurre-hartze, Laguntza eta Birgizarteratzeari buruzkoa.

b) 35/1986 Dekretua, otsailaren 11koa, Drogamenpekotasunaren aurkako Ekintzetarako Lehendakariaren Bulegoa.

c) 399/1991 Dekretua, ekainaren 25ekoa, Drogamenpekotasunen Aholku Batzordea sortzeko dena.

d) 482/1991 Dekretua, irailaren 10ekoa, Drogamenpekotasunen Aholku Batzordea sortzen zuen Dekretua aldatzeko dena.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Erregelamendu bidez garatzea.

Baimena ematen zaio Euskadiko Gobernu Kontseiluari lege hau erregelamendu bidez garatzeko.

*Bigarrena.–* Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko uztailaren 2an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* Irretroactividad de las disposiciones.

Los expedientes sancionadores iniciados al amparo de la Ley 15/1988, de 11 de noviembre, continuarán su tramitación conforme a la misma hasta su conclusión definitiva, sin perjuicio del carácter retroactivo de las sanciones establecidas en la presente ley cuando resulten más favorables para el infractor.

*Segunda.–* Plazo de adaptación.

Se establece un plazo de tres meses desde la entrada en vigor de la presente ley para la realización de las actividades materiales de adaptación que requiera el contenido de la misma.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

1.– Quedan derogadas todas las normas de igual o inferior rango en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en esta ley.

2.– Quedan derogadas expresamente las siguientes disposiciones:

a) La Ley 15/1988, de 11 de noviembre, sobre Prevención, Asistencia y Reinserción en materia de Drogodependencias.

b) El Decreto 35/1986, de 11 de febrero, sobre creación de la Oficina del Lehendakari para la Lucha contra las Drogodependencias.

c) El Decreto 399/1991, de 25 de junio, por el que se crea el Consejo Asesor de Drogodependencias.

d) El Decreto 482/1991, de 10 de septiembre, de modificación del Decreto por el que se crea el Consejo Asesor de Drogodependencias.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Desarrollo reglamentario.

Se autoriza al Consejo de Gobierno del País Vasco para dictar las disposiciones reglamentarias en desarrollo de la presente ley.

*Segunda.–* Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dada en Vitoria-Gasteiz, a 2 de julio de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.